



IRALE

2021eko udarako eta 2021-2022 Ikasturterako DEIALDIAK

2021-2022 IRALE programa

IRALEren 2021-2022ko eskaintzaren laburpena duzu hau. Informazioa osatu eta zehazteko, jo ezazu IRALEk argitaratuko dituen bi agindu hauetara:

- ***2021eko udarako eta 2021-2022 ikasturterako IRALE programan parte hartzeko Agindua*** (EHAA, 2021/04/26)
- ***IRALE programak 2021-2022 ikasturtean eskainiko dituen irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroen berri eman (H eta I ikastaroak) eta ikastarook egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzen duen Agindua*** (EHAA, 2021/04/26)

Interneteko helbide honetan ere guztion eskura izango dituzue agindu horiek:

www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara



NORENTZAT DIRA DEIALDI HAUEK

a) irakastordu barneko ikastaroak

- Herri-ikastetxeetako irakasle funtzionario, irakasle finko eta irakasle bitartekoentzat.
- Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoentzat.
- Herri-ikastetxeetako Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile finko eta lan-legepeko aldi baterako irakasle eta hezitzaileentzat.
- Hezkuntza Ikuskaritzako eta irakaskuntzaren laguntza-zerbitzuetako langileentzat.

b) irakastorduz kanpoko ikastaroak

- Herri-ikastetxeetako eta ikastetxe pribatuetako irakasle guztientzat: irakasle funtzionario, bitarteko, finko eta ez-finkoentzat.
- Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaile guztientzat: bai finkoentzat eta bai aldi batekoentzat.
- HE2ra arteko ikastaroetan, Haurreskolak Patzuergoko irakasleentzat eta hezitzaile finkoentzat eta ez-finkoentzat ere bai.

ESKABIDEAK NOIZ-NOLA BETE

-Irakastordu barneko ikastaroak (R ikastaroak; U ikastaroak; 3000/4000/5000 ikastaroak) eta irakastorduz kanpoko behe-mailako ikastaroak (AU, A, EU eta E):

Noiz: **2021/04/27tik 2021/05/11ra** (bi egunak barne)

Nola: *online*. Horretarako, jo helbide honetara:

<https://irakaslegunea.euskadi.eus/eu/irakaslegunera-sarrera2>

Atalak>Administrazio-izapideak>IRALE ikastaroak

-Irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroak (H eta I):

Noiz: **2021/04/27tik 2021/05/11ra** (bi egunak barne)

Nola: *online*. Eskabideak ikastetxeek egingo dituzte helbide honen bidez:

Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoak:

<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/irale-2021-2022>

Itunpeko ikastetxe pribatuak eta Hezkuntza Sailarenak ez diren ikastetxe publikoak:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1063804>

Eskabidea *online* ezin baduzu bete, jo ezazu dagokizun Hezkuntza Ordezkaritzara (Euskara Atala)



Irakastordu barneko ikastaroak

Ikastaro hauek egin daitezke 2021-2022 ikasturtean:

- **HE2, C1 edo baliokideren batetik gorako ikastaro trinkoak**

Ikastaro-mota	AZALPENA
R300	Euskarazko komunikazio-kompetentzia sendotzeko ikastaroa, irakasle eta hezitzaileentzat
R400	Euskarazko ikasmaterialak sortzen trebatzeko ikastaroa
R600	Curriculumaren euskal dimentsioa irakasarloetan eta ikastetxean lantzeko ikastaroa
R900	Euskarazko ahozko komunikazioa irakasjardunean

(Izena R ikastaro baterako baino gehiagotarako eman ez gero, lehentasun hau ezarriko da: R300 > R400 > R900 > R600)

Kontuan hartu beharreko informazioa:

- **R300 ikastaroa** eskatzeko, ezinbestekoa izango da galdetegi bat eranstea (Deialdiaren IV. eranskina), komunikazio-gaitasunaren zer eremu hobetu nahi dituzun adierazteko.
- **R400, R600 eta R900 ikastaroak** eskatzeko, ezinbestekoa izango da dagokion ikastetxeko zuzendariak bete beharreko adierazpena eranstea (deialdiaren V., VI. eta VII. eranskinak). Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro hori egiteak ikastetxearen beharrei erantzuten diela, eta bat datorrela hezkuntza-proiektuarekin eta hizkuntza-proiektuarekin.
- **R400, R600 eta R900 ikastaroak** eskatzeko, ikastaroetan garatu beharreko proiektuaren egitasmo-txosten labur bat aurkeztu beharko da. Egitasmo-txosten labur horiek prestatu ahal izateko gidak eskuragarri daude Hezkuntza Sailaren webgunean (txostena aurkezteko azken eguna: maiatzaren 27a).
- **Egile-eskubideak.** Ikasketariak proiektua egitean beste egileren batzuen testuak, irudiak eta beste erabiltzeko asmorik badu, berak izango du dagozkion baimenak eskuratzeko ardura. Baimenak eskuratuta izan beharko ditu egitasmo-txostena aurkezten duenerako.

- **HE1erainoko ikastaro trinkoak**

Ikastaro-mota	AZALPENA
U2	HE1 lortzeko urte osoko ikastaroa
3000	HE1 lortzeko urte erdiko ikastaroa

- **HE2rainoko ikastaro trinkoak**

Ikastaro-mota	AZALPENA
U3	HE2 lortzeko urte osoko ikastaroa
4000	HLEA lortzeko urte erdiko ikastaroa
5000	HE2 lortzeko urte erdiko ikastaroa



IRAKASTORDU BARNEKO IKASTAROAK NOIZ

Taulak zehazten du ikastaro bakoitza noiz hasten eta noiz amaitzen den:

	U2, U3	3000, 4000 eta 5000	R300	R400	R600	R900
Egutegia	2021/09/06- 2022/06/06	2022/01/10- 2022/06/06	1. txanda (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2021/09/06- 2021/12/22 2. txanda (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2022/01/10- 2022/04/08	2021/09/06- 2021/12/22 (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)	1. txanda 2021/09/06- 2021/12/22 (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2. txanda 2022/01/10- 2022/04/08 (Donostian eta Bilbon)	2022/01/10- 2022/04/08 (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)
Ordutegia	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu	Goizez, bosna ordu
Zenbat ordu	850 ordu	475 ordu	365 ordu	365 ordu	365 ordu	365 ordu

Ordu-kopuruak gutxi gorabeherakoak dira.

R ikastaroen egutegia eta ordutegia IRALEko irakastegi bakoitzak zehaztuko ditu; ikasketarien ordutegi-egutegiak, beraz, horiek izango dira, eta ez haien ikastetxeetakoak.

R ikastaroen ikasketariak, IRALEko irakastegian dauden bitartean, ez dute baimenik izango irakastegiko jardunez besteko eginkizunetan parte hartzeko (irakastegiko ordutegiaren barneko bestelako ikastaroetan, ikasketa-bidaletan...).



Irakastorduz kanpoko ikastaroak

- Ikastaro hauek egin daitezke 2021eko udan:**

HE2ra arteko ikastaroak

Ikastaro-mota	AZALPENA
AU	HE1erainoko ikastaroa
EU	HE2rainoko ikastaroa

- Ikastaro hauek egin daitezke 2021-2022 ikasturtean:**

HE2tik gorako ikastaroak (ikastetxean bertan eta formazio-orduetan egin daitezkeenak)

Ikastaro-mota	AZALPENA
H1	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna: Euskaltzaindiaren batasun-arauak.
H2	Idazmena: irakaskuntza-jardunean euskara zuzen eta egoki erabiltzea.
H3	Mintzamena: irakaskuntza-jardunean euskara zuzen eta egoki erabiltzea.
H4	Ipuingintza eta Kontalaritza.
H5	Euskal kantak eta jolasak.
H7	Soziolinguistika: Taller d’Espai Lingüístic Personal (TELP).
H9	Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako.
H10	Hizkuntza-sozializazioa: euskararekiko jarreretan eta hizkuntza-ohituretan eragiteko oinarriak eta jarduerak.
I1	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa.
I3	Ahozko hizkuntzaren lanketa Hizkuntza Normalizazioaren altzotik.
I4	Arloetan (zientzietan, matematiketan...) ahozko komunikazioa lantzeko oinarriak.
I5	Hizkuntza-trataera integrala garatzen. Arloetan/proiektuetan hizkuntzaren lanketa ekintza komunikatiboen bidez.
I6	Hizkuntza-tratera integrala garatzen. Euskara eta ahozkoa erdigunean jarrita, hizkuntza-arloen arteko elkarlana eta beste arloekin lotura.

HE2ra arteko ikasturteko ikastaroak

Ikastaro-mota	AZALPENA
A	HE1erainoko ikastaroa
E	HE2rainoko ikastaroa



HELBIDEAK

Arabako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoa: **945 017251**

E-posta: huisarep3@euskadi.eus

Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoak: **944 031 101/944 031 109**

E-posta: huisb130@euskadi.eus

Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritza. Euskara Atala

Telefonoa: **943 022 873**

E-posta: huisg006@euskadi.eus

Gasteizko IRALE

Telefonoa: **945 274 400**

E-posta: 010146aa@hezkuntza.net

Bilboko Dolaretxeko IRALE

Telefonoa: **944 129 646**

E-posta: 014212aa@hezkuntza.net

Bilboko Artazugoikoko IRALE

Telefonoa: **944 280 104**

E-posta: 015048aa@hezkuntza.net

Donostiako IRALE

Telefonoa: **943 404 610**

E-posta: 012233aa@hezkuntza.net

Eibarko IRALE

Telefonoa: **943 120 100**

E-posta: 013360aa@hezkuntza.net

Hezkuntza Sailaren webgunea:
<http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara>